

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritziz duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nagusienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Manu hori betetzeko, alde aurreko kontsulta publikoa egin zen, honako arau hauek aldatuko dituen foru dekretuaren proiektuari buruz: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsia, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua, apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 8ko 69/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Helburua da erregistro liburuak eramateko sistema berri bat arautzea, Zerga Ogasuneko zerbitzu telematikoen bidez. Aipatutako kontsulta publikorako, Nafarroako Gobernuaren webguneko Gardentasunaren Atarian argitaratu zen.

Herritarrek iradokizunak aurkeztuz gauzatu da parte-hartzea, sdesarrollo.normativo.fiscalidad@navarra.es, helbidearen bitartez, 2017ko martxoaren 7tik 25era.

Ezarritako epea iraganik, aditzera ematen da ez dela iradokizunik jaso; hortaz, aipatutako foru dekretu proiektuaren testua prestatuko da.

Iruñean, 2017ko martxoaren 27an

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

José Javier Zabaleta Zúñiga